

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2016ko ABENDUAREN 22an
EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Josu Artetxe
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Iratxe Parro

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamaseiko abenduaren hogeita bian, hemeretziak direnean, Udaltzaga Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongiatorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko azaroaren 17an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Iratxe andreak (AB) aipatu du 2016ko azaroaren 17ko bilkurako aktaren lehen puntua, 2016ko urriaren 20ko aktaren onespenera buruzkoa, aho batez onetsi zela jaso zela; baina Iratxe Parro (BILDU) eta Josu Artetxe (BILDU) ez ziren bilkura hartan egon, hortaz, abstenitu egin ziren.

Idazkariak zuzenketa jaso du.

Gaiari buruzko beste ezer esan gabe, akta aho batez onetsi da.

2.- Berrestea 2016ko abenduaren 1eko 493/16 Alkatetza Dekretua; horren bitartez, Aiarako, Artziniega eta Okondoko udalen eta Aiarako Kuadrillaren arteko lankidetzahitzarmena onesten da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailearen zerbitzua handitzeko.

Iraida andreak (AB) galdetu du ea urtarrilean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako laguntzaileak egun osoz jardungo duen, batzordean baietz esan baitzen.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du asmoa hitzarmen bat sinatzea dela, urtarrilean edo otsailean, hori horrela izan dadin; dena den, bien bitartean, Kuadrillako Gobernu Batzak erabaki du urtarrilean lanaldi erdian aritzea, hitzarmena onetsi arte.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- 2016ko abenduaren 1eko 493/16 Alkatetza Dekretua.

IKUSI DA.- Alkatetza Dekretu bidez hartutako premiazko erabakia, 2016ko abenduaren 1etik 31ra bitartean indarrean jarri behar baitzen, eta ezin zen hura sinatzeko hurrengo bilkurara arte itxaron.

Udalbatza Osoak honako hau **ERABAKI DU** aho batez:

Lehenengoa.- 2016ko abenduaren 1eko 493/16 Alkatetza Dekretua Berrestea; horren bitartez, Aiarako, Artziniega eta Okondoko eta Aiarako Kuadrillaren arteko lankidetzaz hitzarmena onesten da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailearen zerbitzua handitzeko.

3º.- Aprobación, si procede, del Convenio de Colaboración entre el Ayuntamiento de Ayala y la Asociación de Madres y Padres de Ikastola Etxaurren, para subvencionar las actividades extraescolares.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

VISTO.- Que la Asociación denominada AMPA Etxaurren lleva a cabo una importante y gran labor social y deportiva, por ser una entidad que genera gran actividad cultural y deportiva en el municipio y en concreto entre el público infantil, fomentando la práctica artística y deportiva entre l@s niñ@s complementaria a la actividad ordinaria del centro escolar.

VISTO.- Que el Ayuntamiento tiene especial interés en el mantenimiento y promoción de la realización de actividades fuera del horario escolar, denominadas actividades extraescolares.

VISTO.- El Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Ayala y la Asociación de Madres y Padres de la Ikastola Etxaurren, para el pago de la subvención correspondiente a actividades extraescolares para el curso escolar 2016-2017.

CONSIDERANDO.- El dictamen favorable de la Comisión Informativa de Euskera y Educación, Cultura, Deportes y Juventud de fecha 13 de diciembre de 2016.

La Corporación, por unanimidad, **ACUERDA:**

Primero.- Aprobar el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Ayala y la Asociación de Madres y Padres de la Ikastola Etxaurren, para el pago de la subvención correspondiente a actividades extraescolares.

Segundo.- Facultar al Alcalde del Ayuntamiento de Ayala para la firma del mencionado convenio.

Tercero.- Notificar el presente acuerdo a la AMPA de la Ikastola Etxaurren adjuntando dos copias del convenio para que se devuelva una de ellas debidamente firmada.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Etxaurren ikastolako IGEren arteko lankidetzaz hitzarmena, eskolaz kanpoko jardueren gastuak diruz laguntzeko.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Etxaurren IGE deituriko elkartea gizarte eta kirol arloko eginkizun garrantzitsua gauzaten ari da, udalerrian kultura- eta kirol-jarduera asko sortzen baitu, bereziki, haurren artean. Arte- eta kirol-jarduerak sustatzen ditu haurren artean, ikastetxeko ohiko jardueretatik kanpo.

IKUSI DA.- Udalak interes berezia du eskolaz kanpoko ordutegian jarduerak hau da, eskolaz kanpoko jarduerak, egiten jarraitzeko eta jarduera horiek sustatzeko.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Etxaurren ikastolako ikasleen gurasoen elkarrearen arteko lankidetzaz hitzarmena, 2016-2017 ikasturteko eskolaz kanpoko jarduerari dagokien diru-laguntza ordaintzeko.

AINTZAT HARTU DA.- Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2016ko abenduaren 13an igorritako aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Etxaurren ikastolako ikasleen gurasoen elkarrearen arteko lankidetzaz hitzarmena, eskolaz kanpoko jarduerari dagokien diru-laguntza ordaintzeko.

Bigarrena.- Aiarako Udaleko alkateari eskumena ematea aipatu hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Etxaurren ikastolako IGERi, eta hitzarmenaren bi kopia eranstea, horietako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.

4.- Onestea, bidezkoa bada, “Etxaurren Ikastola konpondu eta aldatzeko” obraren amaierako 2. likidazio-ziurtagiria; guztira, 79.114,74 euro dira (BEZa barne).

AINTZAT HARTU DA.- 2016ko abuztuaren 2ko 295/16 Alkatetza Dekretuaren bitartez LEZIAGA 1995 CONSTRUCCIONES SL enpresari esleitu zitzaion "Etxaurren Ikastola konpondu eta aldatzeko" obraren kontratua. Horren zenbatekoa 163.347,00 euro + BEZa da; guztira: 197.649,87 euro.

IKUSI DA.- Obraren amaierako bigarren likidazio-ziurtagiria; guztira, 79.114,74 euro dira (BEZa barne).

AINTZAT HARTU DA.- Obra-zuzendari I. M. B. jaunak igorritako oniritzia.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Onestea “Etxaurren Ikastola konpondu eta aldatzeko” obrari dagokion amaierako bigarren likidazio-ziurtagiria (79.114,74 €, BEZa barne), eta aipatutako gastua baimentzea.

BIGARRENA.- Diruzaintzari agintzea 79.117,74 euro ordaintzeko Leziaga 1995 Construcciones SL enpresari.

5.- Udal taldeek aurkeztutako mozio bateratua, Aiaralderako Saneamendu Plan bat garatzeko premiari buruzkoa.

Udalbatzako kideek mozioko 6. puntuan aldaketa hau egitea erabaki dute; “burua” jartzen duen tokian “alderdi” jartzea, eta herri guztien izenak aipatzea.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta adostutako aldaketak bozkatu dira; Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute mozio hau:

EAJ-PNV, EH BILDU ETA AIARA BATUZ UDAL-TALDEEN MOZIO BATERATUA, NERBIOIGOIENEN SANEAMENDU SISTEMARI BURUZKOA:

1.- Aiarako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio al bait azkarren idatz ditzala Nerbioigoieneko saneamendu-sistemaren proiektua eta aurreproiektua, eta ekin diezaiola lizitatzeari eta esleitzeari.

2.- Aiarako Udalak URA Agentziari eskatzen dio aurrekontu-esleipen nahikoa bidera dezala kolektoreen sarerako eta Basaurbeko (Laudio) eta Markixanako (Aiara) hondakin-uren araztegiatarako beharrezkoak diren lursailak desjabetu edota erosi ahal izateko.

3.- Aiarako Udalak URA Agentziari eta Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio lagundu dezatela obrak exekutatzeke beharrezkoak diren lursailak eskuratzen.

4. Aiarako Udalak Basaurbeko HUA eta udalerria zeharkatuko duten kolektoreak egongo diren lursailen jabeekin bitartekari lanak egiteko konpromisoa hartu du, horien erostea errazteko. Era berean, Laudioko Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio, Markixanako HUA egongo den lursailen parte baten jabea den heinean, erraztu dezala lursail horiek eskuratzea eta lan egin dezala Aiarako Udalarekin batera jabeekin egin beharreko bitartekaritzan.

5. Aiarako Udalak inplikaturako udal guztiei, Arabako Foru Aldundiari, Ura Agentziari, Kantauriko Urkidetza ur-partzuergoari eta eskumena duten bainerako administrazio guztiei eskatzen die, haien eskumenen esparruan, elkarlanean jarrai dezatela EAeko Plangintza Hidrologikoan Aiaralderako ezarritako helburuak eta neurriak erdietsi ahal izateko. Planifikazioak jaso beharko du eragindako arroen berreskurapena.

6.- Aiarako Udalak URA Agentziari eta Arabako Foru Aldundiari eskatzen die Nerbioigoieneko saneamendu-proiektuan jasotzeko banakako edo taldeko konponbideak, Izoria ibaiaren isurialdeko herrietan (Murga, Olabazar, Izoria, Maroño, Salmantón, Aginaga y Madaria), bai zuzenean Markixanako HUArekin lotuta daudenetan (bereziki Maroñoko urtegiari), bai udalerriko beste herrietan ere: (Menoio, Kexaa, Ozeka, lujo) eta (Añes, Costera, Erbi, Lejarzo, Llanten, Menagarai-Beotegi eta Retes de Llanten), Sojoz gain, eskualdeko Uraren Plan Osoaren Proiektuaren barruan.

7.- Aiarako Udalak mozio hau igorriko die honako hauei: Espainiako Gobernuko Obra Publikoak, Garraioa eta Ingurumena Ministerioari, Arabako Foru Aldundiari, URA Agentziari, Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoari, Aiaraldea osatzen duten udalei, eta Administrazio Batzordeei eta Aiara eta Amurrioko udalei ere.

6.- Onestea, bidezkoa bada, Olabazarreko Administrazio Batzaren eskaera, bere lursailak Aiarako Ehiza Barrutian sartzeke buruzkoa.

Esteban jaunak (BILDU) ustiapenaren prezioa nola geratzen den galdetu du. Idazkariak erantzun du alderdi hori akordioaren proposamenean islatu dela. Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiko Ingurumena eta Hirigintzako foru diputatuaren 2014ko abuztuaren 12ko 358 Foru Agindua. Horren bitartez, VI-10.120 ehiza-barrutia (Aiarako Ehiza Barrutia deiturikoa) berritzea eta legeztatzea onetsi zen; bere azalera, guztira, 13.693 hektareakoa da.

IKUSI DA.- Ehiza-barruti horretan ez zeuden Olabezarreko Administrazio Batzaren eta bertako herritarren lur komunak; izan ere, 2016ko irailera arte Amurrioko Udaleko ehiza-barrutiaren barruan zeuden.

IKUSI DA.- Amurrioko ehiza-barrutia iraungi ondoren, Olabezarreko Administrazio Batzak, 2016ko azaroaren 18ko bilkuran, bere lur komunak ematea erabaki zuen, Aiarako Ehiza Barrutian sartzeko. Era berean, herri horretako bizilagunek beraien lursail pribatuak eman dituzte helburu bererako.

IKUSI DA.- 2016ko azaroaren 21ean, aipatutako Administrazio Batzak, ehiza barrutia zabaltzeko eskatu zion Udalari, bere lur komunak eta partikularrenak sartzeko.

IKUSI DA.- 2016ko urriaren 13an Aiarako Ehiza eta Arrantza Elkartek (aipatutako barrutiaren zinegetika-aprobetxamenduaren esleipenduna) Udalari bere onespena igorri zion, aipatutako lursail horiek ehiza barrutian sartzeko.

AINTZAT HARTU DA.- 2014an, ehiza-barrutiaren aprobetxamendua esleitu ondoren, barruti horretako jabeetako batek Arabako Foru Aldundiari eskatu zion ehiza-barrutian sartzeko 68 hektarearekin; hortaz, Aiarako Ehiza Barrutiak 13.761 hektarea ditu, 1.380,5 hektareako erreserba eremua mantenduz (azalera osoaren % 10 baino gehiago).

AINTZAT HARTU DA.- Olabezarreko lursailak sartu ondoren (322 hektarea), barrutiaren azalera osoa 14.083 hektareakoa izango litzateke, eta, erreserba eremua, 1.408 hektareakoa.

AINTZAT HARTU DIRA.- Euskadiko Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legea eta Arabako Lurralde Historikoko Ehizaren ekainaren 14ko Foru Araua.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Olabezarreko Administrazio Batzaren eta bizilagunen eskaera, herri horretako 322 hektarea Aiarako VI 10.120 ehiza-barrutian sartzeari buruzkoa; horrenbestez, barruti horren azalera osoa 14.083 hektareakoa izango da.

Bigarrena.- Erreserba eremua 28 hektareatan handitzea; horrela, azalera osoa 1.408 hektareakoa izango da (azalera osoaren % 10).

Hirugarrena.- Barrutiaren zinegetika-aprobetxamenduaren esleipena aldatzea; orain arte Aiarako Ehiza eta Arrantza Elkartearena zen. Hala, aprobetxamenduaren azalera osoa 14.083 hektareakoa izango da, eta 2017ko aprobetxamenduaren urteko zenbatekoa 410 euro gehiago gehi dagokion KPIaren kalkulua izango da. Hurrengo urteetan dagokion KPIaren arabera igoko da.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Olabezarreko Administrazio Batzari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Bosgarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea Aiarako Ehiza eta Arrantza Elkarteari. Halaber, azaltzea ebazpenaren hirugarren puntuaren aurka berrezartze-helegitea aurkez daitekeela Udalean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez daiteke, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietarako Vitoria-Gasteizko Epaitegian.

7.- Onestea, bidezkoa bada, EH BILDUK aurkeztutako mozioa, Garoñari buruzkoa.

Mozioa aktan erantsi da, I. ERANSKINA gisa.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

8.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:

- **Erref.: 461/16.- Zorroza Gestión SL.-** Jarduera-espedientea iraungitzat jotzea, eta jarduera legeztatzeko dokumentazioa eskatzea.
- **Erref.: 462/16.- M.A.C.A.-** Obrarako udal-lizentzia ematea Retes de Llantenon familia bakarreko etxebizitza eraikitzeko, eta 6. poligonoko 828 lursaila bereizteko lizentzia ematea.
- **Erref.: 463/16.- M.A.C.A.-** Fidantza eskatzea, Retes de Llantenon familia bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko obren hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 464/16.-** Alkatearen 2/2016 kreditu-transferentziari dagokion espedientea eta kredituak gaitzea.
- **Erref.: 465/16.-** Onestea F/2016/12 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **Erref.: 466/16.- M.A.C.A.-** Obrak hasteko udal-baimena ematea, Retes de Llantenon familia bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko (6. poligonoko 828 zenbakiko lursailean).
- **Erref.: 467/16.- Aguiñigako Administrazio Batza.-** “Aguiñigako hondakin-urak arazteko sistema ordezkatzeko” obra-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 468/16.- J.B.G.-** Izoriako etxebizitza bateko horma bat konpontzeko, beste bat eraikitzeko eta alde bat batzeko obrarako udal-lizentzia ematea.
- **Erref.: 469/16.- Llantenoko Administrazio Batza.-** Llantenoko eskolen eraikineko teilatua konpontzeko obrarako lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.: 470/16.- “Luiadoko 1333-3 lursailean erabilera publikoko jarduketak” egiteko obrak kontratatzeko pleguak onestea.**
- **Erref.: 471/16.- Luiadoko Administrazio Batza.-** “Luiadoko Estartako auzoko hirigintza eta instalazioak” obraren proiektua idazteko ordainsariak ordaintzeko diru-laguntza ematea.
- **Erref.- 472/16.- Menagaraiko Amor Misericordioso Ikastetxea.-** Diru-laguntza eman ahal izateko agiri gehiago eskatzea, lankidetzaren hitzarmenaren arabera.
- **Erref.: 473/16.- Amigos de Etxaurren Elkartea.-** Diru-laguntza eman ahal izateko agiri gehiago eskatzea, lankidetzaren hitzarmenaren arabera.
- **Erref.: 474/16.- Maroñoko San Pedro Apostol Eliza.-** 2015eko OHZri dagokion zenbatekoa itzultzea.
- **Erref.: 475/16.- Akki-Tek Diseño y Aplicaciones Constructivas SL.-** Luiadoko eta Arespalditzako kirol anitzeko pistak ixteko obraren proiektua idazteko zerbitzuen kontratua etetea.

- **Erref.: 476/16.- AIARAKO SARAUBE HOCKEY KLUBA.-** 2015eko diru-laguntza itzultzeko prozedurari hasiera emateko dekretua.
- **Erref.: 477/16.- ASOCIACIÓN CULTURAL LA ESCUELA-ESKOLA.-** 2015eko diru-laguntza itzultzeko prozedurari hasiera emateko dekretua.
- **Erref.: 478/16.- AIARAKO SARAUBE HOCKEY KLUBA.-** 2016ko diru-laguntza ematea; lehen ordainketa.
- **Erref.: 479/16.- Murgako Administrazio Batza.-** Autobusen bi markesina jartzeko obrarako udal-lizentzia ematea (bata, Iberdrolako azpigeltokian eta, bestea, industrialdean).
- **Erref.: 480/16.- Berbalagun-Gurasolagun programa kontratatzeko pleguak onestea eta espedienteari hasiera ematea.**
- **Erref.- 481/16.-J.P.Z.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2016) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 482/16.-AM.M.M.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2016) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Rfa.- 483/16.- Etxaurren Ikastolako IGE.** 2016ko udalekuetan parte hartu duten haurrek sartutako zenbatekoa ordaintzea.
- **Erref.: 484/16.- Kexaako Administrazio Batza.-** Kexaako hilerrira doan bidean hormigoia botatzeko udal-lizentziari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.: 485/16.- Leziaga 1995 Construcciones SL.-** Luiaondon botikak gordetzeko erabiltzen den etxola birgaitzeko obraren kontratua esleitzea.
- **Erref.- 486/16.- J.G.G.-** Finkak banantzeko lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 487/16.-** Diru-laguntza ematea Araba Euskaraz 2016ri.
- **Erref.- 488/16.-** Diru-laguntza ematea Herri Urrats 2016ri.
- **Erref.- 489/16.-** Diru-laguntza ematea Nafarroa Oinez 2016ri.
- **Erref.- 490/16 .-** EHIGErri diru-laguntza ematea, Euskal Eskola Publikoaren Jaialdia (2016) antolatzeko.
- **Erref.- 491/16.- Onestea F/2016/13 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 492/16.- D.A.A.-** Kexaan finkak banantzeko lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.: 493/16.-** Aiarako, Artziniegako eta Okondoko udalen eta Aiarako Kuadrillaren arteko lankidetzeta-hitza onestea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailearen zerbitzua handitzeko.
- **Erref.: 494/16.- Alday Ongintzazko Fundazioa.-** 2016ko urriko gastuak justifikatzeko agiriak aurkezteko eskatzea, Arespalditzako CRADari dagokionez.
- **Erref.: 495/16.- FCC Aqualia, SA.-** Administrazio Batzetako ur-deposituak ikuskatu eta kloratzeko zerbitzuak bermatzeko aurkeztutako bermea itzultzea,.
- **Erref.: 496/16.- F.J.O.B.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Murgan dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.
- **Erref.: Sojo Administrazio Batza.-** Sojoko Ubierte auzora doan lurzorua konpontzeko eta horma indartzeko obrarako udal-lizentzia ematea.
- **Erref.: 498/16.- Alday Ongintzazko Fundazioa.-** 494/16 dekretua berrestea.
- **Erref.: 499/16.- E.C.B.-** 4. poligonoko 723 eta 726 lursail katastralak ofizioz berreskuratzeko espedienteari hasiera ematea.
- **Erref.- 500/16.- Llantenoako Administrazio Batza.-** Eskolen eraikinaren teilatua konpontzetik eta botatzetik sortutako hondakinen kudeaketa bermatzeko fidantza eskatzea.
- **Erref.: 501/16.- D.P.O.-** Luiaondoko pista estaliaren zati bat ixteko obraren proiektua idazteko zerbitzuaren esleipena.

- **Erref.: 502/16.- Gestión Integral en Ingeniería Civil IM2, SL.-** Luiaondoko Padura kaleko hiri-mugikortasunaren obraren proiektua idazteko zerbitzuaren esleipena.
- **Erref.: 503/16.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Beotegiko “El Torcoko” bidea hobetzeko obra-proiektua idazteko ordainsarien gastua finantzatzeko.
- **Erref.: 504/16.- Aiarako Administrazio Batzak.-** 2016ko ehiza-barrutiaren diru-laguntza.
- **Erref.: 505/16.- E.B.A. SL.-** Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinean hautemandako akatsak konpontzeko administrazio-espeditentari hasiera ematea.
- **Erref.: 506/16.- Retes de Llantenoiko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, argiteria publikoan etengailu bat jartzeko.
- **Erref.: 507/16.- Olabazarreko Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Olabazarreko San Pedro mendira doan landa-bidea konpontzeko.
- **Erref.: 508/16.- C.G.L.** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2016) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.: 509/16.- Luiaondoko Administrazio Batza.-** "Árbol Malato” monumentua konpontzeko obrarako lizentzia izapidetzentzari uko egin izana onestea.
- **Erref.: 510/16.- Kexaako Administrazio Batzarra.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Kontzejuaren Aretoa egokitzeko.
- **Erref.: 511/16.- F.Q.S.J.-** Alkatetza Dekretua aldatzea, eraikuntzaren zuzendariaren akats bategatik.
- **Erref.: 512/16.- G.T.-** Izoriako Landetxearen kanpoaldea egokitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.
- **Erref.: 513/16.-** Alkatearen 3/2016 kreditu gehigarriaren espeditentea.

- Iraida andreak (AB) 498/16 dekretuagatik, 494/16 Dekretuaren zuzenketagatik, alegia, galdetu du.

Idazkariak azaldu du 494/17 Dekretuaren bitartez Alday Fundazioari eskatu zitzaizola hainbat dokumentu aurkezteko, urriko gastuak arrazoitze aldera; izan ere, ez ziren zuzenak edo ez ziren arrazoitu. Dena den, hilabetero zenbateko bera duen garbiketa gastu bat dagoela ikusi dugu; horrenbestez, Gizarte Ongizateko Foru Institutuarekin hitz egin ondoren, baieztatu digute zenbateko finko hori jartzeko erabakia Alday Fundazioarekin hartutako konpromiso bat dela. Horrenbestez, idazkariak eta kontu-hartzaileak horren berri izan ondoren, eskaera aldatzeko eskatu genuen, garbiketa gastuak ez arrazoitzeko.

- Josu jaunak (BILDU) 464/16 eta 513/16 Dekretuengatik galdetu du.

Idazkariak azaldu du 464/16 Dekretua aldaketa bat dela, agentzia exekutiboak enbargatutako zergaren zati bat itzultzeko partida bat sortzeko; izan ere, epai batek dio legez enbargatu litekeen zenbatekoa baino gehiago enbargatu duela.

513 Dekretua kredituen aldaketa bat da, langileen gastuetarako partida handitzeko, 2012ko aparteko ordainsaria ordaintzeko dagoen zatia ordaintzeko.

- Josuk 474 eta 501 Dekretuengatik galdetu du; esan du ez zekitela horrela egingo zenik, eta harrituta daude.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du batzorde batean eta aurreko bilkuran esan zela; esan zen AKKI-TEK enpresari esleitutako kontratua ebatzi egingo zela, eta hiru arkitekto gonbidatuko zituztela, eskaintza merkeena esleitzeko. Proposamen ekonomikoak ireki ziren, idazkariak aurkeztutakoak, eta Alkatetza Dekretu bidez esleitu zen eskaintzarik merkeena.

Josu jaunak (BILDU) gehitu du gai horri buruz hainbat zalantza dituela; izan ere, legez horrela egitea egokia den arren, beraien ustez, lanak Udalari zerbitzuak eskaintzen dizkien profesionaleri esleitzeak mesfidantza sortzen du. Halaber, bi lan esleitu zaizkie Udalarentzat lan egiten duten teknikarier. Bestetik, esan du parte hartu nahi izango lukeela eta gaiari buruzko informazio gehiago eduki. Lanak profesionaleri esleitzeari buruzko gaia Hirigintza Barzordean berriz lantzeko eskatu du, mesfidantza sortzen duelako bere taldean.

➤ **Eguneko aztergaien zerrendako gainerako puntuekin jarraitu aurretik, alkateak proposatu du Eguneko Aztergaien Zerrendatik kanpoko honako puntu hau premiaz sartzeari. Azaldu du hitzarmen eta aurrekontu-partida guztiak aztertu ondoren, Eskutxiko Ahotsak elkartearekin 2016rako egindako hitzarmena ez dela onetsi, azken urteotan egin den bezala. Horrenbestez, proposatzen du premiaz sartzeari bilkura honetan.**

Lehenik, puntu hori eguneko aztergaien zerrendan premiaz sartzeari buruzko bozketa egin da, eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hortaz, puntu hau gehitu da:

9. Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta “Eskutxiko Ahotsak” Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena (2016).

IKUSI DA.- Aiarako Udalak musika eta musikaren erabilera sustatu nahi ditu esparru guztietan. Halaber, ikusi da Eskutxiko Ahotsak elkarteak hori sustatu nahi duela.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Eskutxiko Ahotsak Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena, musika sustatzeko egiten diren ekimen eta jardueren sustapena bultzatzeko.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Eskutxiko Ahotsak Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena (2016), urteko jarduerak eta jarduera martxan egoteak eragiten dituen gastuak diruz laguntzeko.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Eskutxiko Ahotsak Elkarteari. Hitzarmenaren bi kopia erantsiko dira, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.

➤ **Gainerako puntuekin jarraitu aurretik, alkateak proposatu du Eguneko Aztergaien Zerrendatik kanpoko honako puntu hau premiaz sartzeari: Leziaga enpresari, Ikastolako lanak egitean izandako atzerapenengatik, isunak jartzeari, beste batzorderen batean aipatu den bezala.**

Lehenik, puntu hori eguneko aztergaien zerrendan premiaz sartzeari buruzko bozketa egin da, eta udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hortaz, puntu hau gehitu da:

10.- Administrazio espedienteari hasiera ematea, Leziaga Construcciones SL enpresari Etxaurren Ikastola konpontzeko eta aldatzeko obren exekuzioan atzeratzeagatik dagokion zigorra jartzeko.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) aipatu du obraren zuzendariak jada idatzi duela gaiari buruzko txostena.

Josu jaunak (BILDU) dio ados daudela isunak jartzearekin; baina, bestetik, esan du txostena gogorra iruditu zaiela. Hortaz, etorkizuneko pleguetarako, epeak murriztea egokia den edo ez pentsatu beharko dute.

Gentza jaunak erantzun du hori Ikastolako obrarekin egin zela lehenbailehen amaitzeko helbururarekin; ikasturtean ahalik eta eragozpen gutxien eragitea zen asmoa.

Josu jaunak esan du ezarriko diren isunak ere aztertu beharko direla.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Abuztuaren 2ko 295/2016 Dekretua; horren bitartez, LEZIAGA CONSTRUCCIONES SL enpresari esleitu zitzaion Etxaurren Ikastola konpondu eta aldatzeko obra, 163.347 euroan (BEZik gabe), bai eta dagokion obrarako kontratua ere.

IKUSI DA.- I. M. B. obraren zuzendari jaunaren 2016ko abenduaren 9ko txostena.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Txostenean zehazten da zuinketa akta sinatu zela 2016ko abuztuaren 10ean; bestetik, esleipen-kontratuan 8 asteko epea zehaztu zen, esleipendunak aurkeztutako eskaintza hobetzetik eratorritakoa. Horrenbestez, obra amaitzeko epea 2016ko urriaren 4a zen, baina ez zen amaitu 2016ko abenduaren 2ra arte; hau da, 59 eguneko atzerapenarekin.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Txostenak dio atzerapenak kontratistari egotzi daitezkeela honako arrazoi hauengatik:

- Exekuzio-abiadura eskasa abuztuan eta irail hasieran; hilabete horietan, egun batzuetan, soilik langile bat egoten zen. Irailean eta urrian ere astiroegi aritu ziren lanean, hasieran aurkeztutako plangintza, eta ondorengo egokitapenei jarraitu gabe.

- Exekuzioan akatsak: konpondu behar izan ziren, eta, ondorioz amaitzeko epea luzatu zen. (modu egokian egin gabeko ebakiak, konpondu egin behar izan ziren; kalitate eskasa, eta hainbat obra-unitate berriz egin behar izan ziren; soldaduraren kalitatearen kontrolean akatsak, konpondu egin behar izan ziren; kanpoko pinturaren kalitatearen kontrolaren kontratua ez betetzea, eta plegua egokitu behar izatea; ura biltzeko kanaloietan akatsak, ondoren konpondu egin behar izan ziren; ikastolako instalazioetan akatsak, ondoren konpondu beharrekoak).

HONAKO HAU GERTATU DA.- Obraren atzerapena dela-eta, Udalak obraren esleipenaren oinarri den baldintza ekonomiko eta administratiboen pleguko zigorrak ezar ditzake; bertan aurreikusten zen 0,20 euroko zigorra, kontratuko prezioaren 1.000 euroko.

Kontratuaren esleipenaren prezioa 163.347 eurokoa izan zen; horrenbestez, eguneko zigorra 32,66 eurokoa da. 59 eguneko atzerapena gertatu denez, zigorra, guztira, mila bederatzihun eta hogeita zazpi euro eta berrogeita bederlatzi zentimokoa izango da (1.927,49 €).

AINTZAT HARTU DA.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen azaroaren 14ko Legegintzako Errege Dekretuaren 212. artikuluan

xedatutakoa (100. artikuluari dagokionez), eta obren esleipena oinarritu den klausula ekonomiko eta administratiboaren XII.2 klausulan xedatutakoa.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Administrazio-espeditari hasiera ematea, Leziaga Construcciones SL enpresari Etxaurren Ikastola konpondu eta aldatzeko obren atzerapena dela-eta zigorra jartzeko; guztira, 59 egunez atzeratu dira, eta egunean 32,66 euroko zigorra ezarri da. Hortaz, zigorra, guztira, 1.927,40 eurokoa izango da.

Bigarrena.- Interesdunari 15 laneguneko epea ematea, erabakia jasotzen duen egunetik aurrera zenbatzen hasita, bere eskubideak defendatzeko egokitzat jotzen dituen alegazioak edo dokumentuak aurkezteko, edo egokiak iruditzen zaizkion probak proposatzeko, espediente honen tramitazioan.

Era berean, jakinaraztea emandako epean idazkirik aurkeztuko ez balu espedientea ebartzeko dela 1.927 euroko zigorrarekin, Etxaurren Ikastola konpondu eta aldatzeko obraren exekuzioan izandako 59 eguneko atzerapenagatik. Zenbateko hori eraginkorra egingo da, ahal bada, kontratistari zor zaiona kenduz edo, bestela, ordaintzeko borondatezko epe bat jarriko da. Epe horretan ezarritakoa ordainduko ez balu, behin betiko bermearekin ordainduko da.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta obra zuzendariaren 2016ko abenduaren 9ko txostena igortzea interesdunari.

Tramite hutsa denez, ezin da inolako errekurtsorik jarri, egokitzat jotzen diren egintzak kontuan hartu gabe.

➤ **Eguneko aztergaien zerrendako gainerako puntuekin jarraitu aurretik, alkateak proposatu du Eguneko Aztergaien Zerrendatik kanpoko azken puntu hau premiaz sartzea: kontu hartzaileak Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruz egindako txostena.**

Gentza jaunak (EAJ-PNV) dio beharrezkoa dela gerakina erabiltzea beharrezkoak diren hainbat gastutarako.

Lehenik, puntu hori eguneko aztergaien zerrendan premiaz sartzeari buruzko bozketa egin da, eta udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hortaz, puntu hau gehitu da:

11.- Udalbatza osoari berri ematea organo kontu-hartzaileak Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondorioz egindako txostena, Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoa.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta Udalbatza Osoko kideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Diruzaintzako soberakinaren zati bat erabili behar da, Gastu Orokorrak atalekoa eta 2015eko likidazioak emandakoa. Xedea da gastuen partida bat sortzea ezinbesteko ordainketak ordaintzeko, ezin delako 2017ko aurrekontua egin arte itxaron.

IKUSI DA.- Idazkari eta kontu-hartzaileak 2016ko abenduaren 21ean eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna betetzeari buruzkoa, Diruzaintzako soberakinaren gastuak finantzatzeko, gastu orokorrak direla eta.

AINZAT HARTU DIRA.- Abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 7.1 eta 7.3 artikulua, 17/2014 Foru Arauak emandako Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzkoa.

Udalbatza osoak organo kontu-hartzaileak 2016ko abenduaren 21an egin zuen Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondoriozko txostenaren, Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoaren, berri du.

12.- Eskaerak eta galderak.

- Josu jaunak (BILDU) Zorroza SL enpresaren espedienteagatik eta arazoengatik galdetu du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio ibilgailuak kentzeko eskatu zaiola; eta enpresaren atzealdean pilatutako material guztia dela eta, dekretu batzuk bidali zaizkio material hori bertatik kentzeko eta neurri zuzentzaileak hartzeko. Jarduera handitzeko espediente bat abiarazi da, eta lehenengo isun hertsatzailea jarri zaio.

- Iratxe andreak (AB) galdetu du ea herriekin hitz egin den obra txikien deialdian, ahal bada, Sierrara doan errepidea konpontzeko obra sartzeko.

Gentza jaunak ezetz erantzun du.

- Iratxe andreak (AB) honako idazki hau irakurri du:

“Aurreko legegintzaldian egin genuen bezala, ildo beretik jarraitu nahi dugu; eta alkatea eta koporazio berria izendatu zirenetik 558 egun igaro ondoren, Aiara Batuz taldeak arabar guztiekin partekatu nahi dugu denbora honetan gertatutakoa, gure ustez hobetu behar diren hainbat alderdi jasotzeko helburuarekin.

Uste dugu, Aiaran pisu eta garrantzi handia dutelako, garrantzia gehiago eman beharreko bi gai daudela:

.- Administrazio Batzak

.- Lehen Sektorea

.- Administrazio Batzak.

Administrazio Batzekiko Harremanetarako Batzordeko presidentea eta gobernu-taldeko kide den J.A. Bartolomek hauteskunde-kanpaina egiten zuen sare sozialetan esaldi honekin: “Lankidetzaren berreskuratzea Administrazio Batzekin. Erabakiak hartzerakoan aintzat hartzea beraiei eragiten dieten gaietan”.

Hauteskudeen ondoren, eta EAJk boto gehien lortu ondoren, harremanetan jarri ziren taldeekin alkatetza lortzeko, eta gure taldearen aurrean defendatu zuten Administrazio Batzekin zeukaten “proiektu handia”, oraindik ikusi ez dugun proiektu hori. Gaur arte ez dute esandakoa bete: hiru hilean behin bilerak antolatu behar zituzten Batzekin, batera lantzeko beraiei eragiten dieten gaiak. Baina soilik bi egin dira, eta informatiboak izan dira; ez dira planteatu lan-mahai bezala.

.- Lehen Sektorea.

Lehen Sektoreari dagokionez, gobernu-taldeak sektore hori dinamizatzeko proiektu bat aipatu zuen, beherakada saiheste aldera; baina soilik Salvada Mendizerrako Ermandade Zaharrean zentratu dira (oso gai garrantzitsua da, baina ez da sektoreri eragiten dion bakarra), eta, zehazki, larreen kudeaketan. Dena dela, beraien ardatz nagusia hori bakarrik izan arren, mendizerraren kudeaketa ez da egokia.

2015eko abuztuaren 18ko bileran gure taldeak Ermandadearen egoerari buruz zeukan informazio guztiaren berri eman zuen, hainbat esparrutan; ondoriorik nagusia izan zen kudeatzaile bat kontratatzeko beharra dagoela, eraginkortasuna hobetzeko eta abeltzainen lanari garrantzia eta balioa emateko. Ermandadea kudeatuko duen norbait kontratatzeko proposamenak urte bat baino gehiago darama mahai gainean; eta akordioa talde guztien artean adostu zen, horretarako egin zen lehen batzordean.

Lehen sektorean lehentasuna duten gaiak direnez, gobernu-taldeari eskatzen diogu kudeaketa hori arintzeko; eta bai kudeatzailearen kontratazioa bai lehen sektorearen dinamizazio proiektua legegintzaldia amaitu aurretik egi bihurtzeko.

Era berean, eta erakundearen barnean, hobetu litezkeen beste bi gai daude:

.- Batzordeak

.- Udalaren funtzionamendua herritarren aurrean.

.- Batzordeak.

Gure ustez, udaleko proiektuak osatzeko eta aberasteko mekanismoak dira, talde politiko guztien ekarpenekin. Hala, bizilagunen bizitza hobetzen saiatuko gara egunero. Baina gobernu-taldeak batzordeak deitzen dituen bakoitzean, gure taldeak ahoz eta idatziz eskatu duen arren, eguneko aztergaien zerrendetan ematen den dokumentazioa ez da nahikoa, eta ez da gobernu-taldearen proposamenik aurkezten. Batzordeen izapidetze-prozesuan dagoen hutsune horrekin, batetik, oso zaila da iritzia ematea; bestetik, bilkurak ez dira arinak izaten eta ezin da onetsi, hobetu edo gobernu-taldearen proposamena baztertu.

.- Udalaren funtzionamendua herritarren aurrean.

Legegintzaldiaren hasieran, 2016ko aurrekontuak negoziatzerakoan, gobernu-taldeak eta Aiara Batuz taldeak erabaki zuten, beste hainbat gauzen artean, Luiaondoko udal-bulego bat irekiko zela atean hainbat egunetan (astelehena eta asteazkena). Gaur egun, gauzak ez dira horrela eta gobernu-taldeak ez du bete akordioa; hori bizilagunek ziurtatu dezakete. Izan ere, askotan gerturatu dira Luiaondoko udal-bulegora kudeaketaren bat egiteko asmoarekin, eta bulegoa itxita aurkitu dute, inongo azalpenik gabe. Uste dugu hori guztia beste arazo larriago baten barruan dagoela, udal-baliabideen antolaketan eragiten duena. Antolaketa horren arduradun zuzena alkate jauna da, eta langileen buru gisa, ez du ikusten edo ez du aurkitzen modurik baliabide horiek optimizatzeko, herritarrei merezi duten zerbitzua eta arreta emateko.

Idazki honetan aztertu ditzakegun beste hainbat gai daude, baina nahi duguna da hausnarketa hau eta adibide horiek lehentasunezkoak diren alderdiak hobetzeko balio izatea; izan ere, beti aurkezten dugu honelako idazkiren bat Udalean, zerbaitek kezkatzen gaituenean, eta horrela egiten jarraituko dugu.

Aiara Batuz taldea horretarako sortu zen, eta defendatzen jarraitzen dugu Udalbatzako kide guztien artean udal-politika egin dezakegula eta udalerraren kudeaketa hobetu dezakegula. Orain arte egin dugun bezala, batera lan egiten jarraitu nahi dugu, beti positiboan aurrera egiten.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du aipatutako gaiak aztertuko direla. Batera lan egiteari dagokionez, ildo beretik lan egiten jarraituko dute, orain arte bezala. Amaitzeko, esan du ekarpen guztiak aberasgarriak direla, eta modu egokian aztertuko direla.


Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak amaitutzat eman du bilkura, hemeretziak eta berrogeita hamar minutu direnean, eta aztertutako gaiak eta ebatzitakoak egiaztatzeko, nik, idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamaseiko abenduaren hogeita bian.

OE
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta.

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.



Azken hamarkadetan asko izan dira Euskal Herriko eta, batez ere, Arabako instituzio eta ekimen sozial ezberdinak Garoñako Zentral Nuklearra itxi eta eraisteko aurrera eran dituzten jarduera eta ekimenak. Aizoa ko Udalbatzak ere hainbatetan adierazi du bere iritzia zentzu honetan.

Garoñako Zentral Nuklearra berriz irekitzeko erraztasunak jartzeko borondatea agertu du CSNko lehendakariak azken hilabeteetan eta berriz ere alarma gorri guztiak piztu dira arriskuak agerian utziz.

Horrengatik guztiagatik, EH Bildu taldeak honako puntuak aurkezten ditu osoko bilkuran eztabaidatu eta onartuak izan daitezten:

1.- Aizoa ko Udalak estatuko Gobernuari exijitzen dio Garoña berehala ixtea bere bitzta erabilgarria aspaldi gainditu zuelako eta berriz irekitzeak arabarren segurtasuna modu larrian arriskuan jartzen duelako.

2.- Aizoa ko Udalak exijitzen du CSNren antzeko erakundeen jarduerak arduran eta bermeetan oinarrituta egotea eta energia nuklearraren erabilerak herritarren segurtasunari dagokionez izan ditzakeen arriskuen aurrean erabateko konpromisoa izatea. Halaber, exijitzen die, inolaz ere ez dezatela luzatu dagoeneko amortizatuta dagoen eta teknologia erabat zaharkitua duen zentral nuklearraren bitzta erabilgarria.

3.- Aizoa ko Udalak estatuko Gobernuari exijitzen dio, erabaki politikoa den heinean, erakunde horien irizpideen gainetik, talde politiko eta sozialek, erakundeek eta herritarrek berehala ixteari buruz duten iritzia orokortua lehenetsi dezala eta modu horretan jardun dezala.

4.- Aizoa ko Udalbatzak CSNko presidente den Fernando Marti Sharfhausen-en berehalako dimisioa eskatzen du. Bere karguko lanetan daukan opakutasunari, Santa Maria de Garoña zentral nuklearraren irekitzeko aukeren inguruan duen alderdikeria nahiko argiak gehitzen zaizkio. Bere karguan herritarren segurtasuna izan beharko litzake lehentasun eta ildo nagusia eta ez hirugarren batzuek izan ditzaketan interes ekonomikoak.

5.- Aizoa ko Udalak Mozio honen berri emango dio estatuko Gobernuan dagokion Ministerioari, Arabako Foru Aldundiari, EAEko Legebiltzarrari, Kongresuari eta CSNri.

Abenduer en, 2016ko Abenduaren 13 an